

EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA (2015): DOKTORETZA AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR PROGRAMA)

Deialdiaren lotura:

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvapps/eu/bopv2/datos/2015/12/1505188e.pdf>

Deialdiaren helburua:

Laguntzak emango dira, ikertzaileak prestatzeko zentroz bestelakoetan doktoretza aurreko egonaldiak egiteko.

Onuradunak:

Laguntzak eskatu ahal izango dituzte 2015/2016 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko Eusko Jaurlaritzaren doktoretza aurreko programaren onuradunek, edozein modalitatetan dihardutela ere. Laguntza horiek lortu ahal izateko, ezinbestekoa da ikertzaileak aktibo eta lehenengo, bigarren edo hirugarren berritze aldian egotea.

GARRANTZITSUA: laguntza hauek Eusko Jaurlaritzaren doktoretza aurreko deialdiaren onuradunek **bestarik ezin dituzte** eskatu. Doktoretza aurreko laguntzen gainerako onuradunek beren kontratuak finantzatzen dituzten erakundeei dagozkien deialdietan aurkeztu behar dituzte eskaerak.

Diru laguntzen ezaugarriak:

Laguntzak eska daitezke hiru hilabeteko egonaldiak egiteko unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+b-aren esparruan diharduten enpresetan, atzerrikoak zein estatukoak izan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrri batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar. Egonaldiak 2016. urtean egin behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea:

2016ko urtarrilaren 15era arte.

GARRANTZITSUA: eskatzaileak dira beren eskaera behar den bezala eta behar den epean aurkeztearen arduradun.

Eskaera egiteko prozedura:

Eskaerak *online* besterik ez dira beteko, honako lotura honen bidez:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2015/egonlabur/y22-izapide/eu/>

Bete ondoren, hautagaiak bere eskaera erregistratu behar du, elektronikoki edo paperean. Erregistro elektronikoa hautatuz gero, ziurtagiri elektronikoa erabili beharko da (NAN elektronikoa, ONA txartela, FMNTaren pertsona fisikoaren ziurtagiria).

Izapideak paper euskarrian egitea aukeratuz gero, aplikazioak sortzen duen eskaera orria inprimatu egin beharko da, eta eskatzaileak sinatu beharko du. Paper formatuko eskaera helbide honetara igorri behar da:

Eusko Jaurlaritzza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Zientzia Politikarako Zuzendaritza
Erreferentzia: Doktoretza aurreko egonaldiak
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria/Gasteiz

Eskaera zuzenean herritarrentzako arreta zerbitzuaren bulegoetan ere aurkeztu ahal izango da; zehazki, Bizkaiko bulegoan (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo), Gipuzkoakoan (Andia 13, 20003 Donostia) eta Arabakoan (Ramiro de Maeztu 10, behea, 01008 Vitoria-Gasteiz).

UPV/EHUko DOKTORETZA AURREKO KONTRATATUEK:

Honako erregistro bulego hauetan formaliza dezakete eskaera:

- ✓ 01 Erregistro Bulegoa, Arabakoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza: Comandante Izarduy 2, 01005 Vitoria-Gasteiz).
- ✓ 02 Erregistro Bulegoa, Gipuzkoakoa (Ignacio M^a Barriola ikasgelategia: Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia-San Sebastián).
- ✓ 03 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa (Errektoretza, Sarriena, zk.g. 48930 Leioa).
- ✓ 84 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbo).

GARRANTZITSUA: eskaera hau aurkezteko ez da behar UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura.

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritzza):

- Euskal Herritik: 012
- Euskal Herritik kanpo: 945 018000
- Atzeretik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2015/egonlabur/y22-izapide/eu/